

42. atala: Taldean

Antzerkia

42.1.- Audioa entzun lehenengo etenaldira arte (0:44). Zein da, zuen ustez, Kevinen bokazioa?



- a) Kulturismoa egitea
- b) Aktorea izatea
- c) Zientzialaria izatea
- d) Irakaslea izatea
- e) Gigoloa izatea

42.2.- Entzungaia osorik entzun, eta galderak erantzun taldeka:

- Zergatik pentsatzen du Kevinek esploratzeko merkatu bat daukala?
- Zergatik ari dira obra baten pasarte bat antzezten?
- Norena da obra hori?

Ikusi taldean ea zenbatak asmatu duzuen egindako hipotesiarekin. Zein da aukeren artean gehien atera dena?

42.3.- Kevinek bere bizitzari norabide-aldaketa eman nahi dio, lanbidea aldatuz. Zuek nolako lanbidea duzue? gustukoa? Gaiaz hitz egiteko jarraitu urratsok:

1. Idatzi papertxo batean zein den zuen lanbidea.
2. Guztiak bildu eta atera diren guztiak idatzi arbelean.
3. Talde txikitik jarri eta saiatu asmatzen bakoitzarena zein den. Eman arrazoiak.



Saiatu zalantza adierazten duten egiturak erabiltzen:

Uste dut... + -(e)la; Iruditzen zait ...+ -(e)la;
Nire iritziz ...; Nire ustez ...
Badirudi ...+ -(e)la /... dirudizu



Adibidez: Zu komertziala zarela uste dut. Erraztasuna duzu harremanetarako eta jario handiko pertsona zara. Gainera, badirudi toki itxietan egotea ez zaizula gustatzen. Saltzaile ona dirudizu.



42. atala: Taldean

42. ATALA: Antzerkia (03:05)

K-Tasio, fabore bat egingo al didazu?

T- Faborea zer den definitzen badidak, erantzungo diat.

K- Honez gero misioa amaitzeko ez zaigu hainbeste falta, eta bueltatzen garenean nire bizimodua aldatzeko erabakia hartu dut.

T- Oso ongi iruditzen zaidak. Sekula ez duk berandu bizitzari norabide egokia emateko.

K- Hala da, bai. Horregatik erabaki dut nire benetako bokazioari aukera bat ematea.

T- Bokazioa?

K- Bai, astronauta...

T- Ortzinauta...

K- Astronauta, ortzinauta, berdin dio! Michelin panpina bat izateari utzi eta nire ametsa beteko dut.

T- Hi? Aktore?

K- Zer, harrituta? Ez dudala balio uste duzu?

T- Ez zekiat.

K- Nire moduko aktore dramatiko asko ez dago, e?

T- Hire modukoarekin zer esan nahi duk?

K- Beltza eta euskalduna. Nik uste badagoela hor aukera bat, esploratzeko merkatu bat.

T- Orduan, casting batetarako prestatzen ari haiz?

K- Bai, zuk, besterik gabe, emaidazu erreplika.

T- Bueno, aber, antzeztua edo ez?

K- Antzeztua bada, askoz hobe. Horrela errazago sartuko naiz ni nire pertsonaian.

T- Bale, bale, antzeztua, beraz.

K- Eta horrela uzten nauzu? Asegabe.

T- Nola asetzea espero duzu ba gaur gauean?

K- Gure maitasunaren promesarekin.

T- Nik nire maitasuna zuk eskatu gabe eman nizun, eta berreskuratu nahi nuke.

K- Zertarako nahi duzu nire maitasuna berreskuratu?

T- Berriri zuri eman ahal izateko.

K- Baina, maitea, nire arimak etorriko diren ezbeharren oihartzunak entzuten ditu.

T- Ez esan halakorik.

K- Joaten utziko zintuzket, baina kaiolara lotuta dagoen txoriari utziko niokeen bezala. Berriri zetazko hariari tira eta nireganatzeko.

T- Oooo, txori hori izatea desiratzen dut.

T- Ze, nola egin diat, e?

K- Oso ongi irakurri... bueno, barkatu, antzeztu duzu.

T- Bai, ezta? Kontuz nirekin, e? castingera aurkeztu eta igual papera kenduko diat eta.

K- Kar, kar, kuidau! bai, ziur naiz 60 urteko *aitatxo jeltzale hartzentzat* ere merkatu bat badagoela.

T- Bada, akaso gehiagotan egin beharko genikek hau, e? Dibertigarria izan duk.

K- Nahi duzunean.

T- Eta nola otu zaik Romeo eta Julietarekin prestatzea hire casting hori?

K- Romeo eta zer?

T- Romeo eta Julieta.

K.- Eta? Hori...

T.- William Shakespeare.

K- Eta nor da hori?

T- Antzeztu diagun obraren egilea.

K- Keba, hau aspaldiko musikal euskaldun batetik aterata dago.

42. atala: Taldean

T- Musikala?

K- Bai. Zuk ezagutu beharko zenuke. Zure garaietako *BB, Borja eta Barbara* musikala.

Erantzunak

42.1.-

b) Aktorea izatea

42.2.-

- Beltza eta euskalduna delako
- Kevinek aktore izateko casting batera aurkeztu nahi duelako
- *BB, Borja eta Barbara* musikaletik hartutakoa da.